

IKASTETXE KATOLIKO ELEBIDUNEK HAIEN ATEAK IREKIKO DITUZTE

Euskarazko irakaskuntzaz mintzatzen garelarik, ez da konfesionalak diren ikastetxeetan pentsatzen. Irakaskuntza katolikoak, alta, bere lekua du! Irakaskuntza Katolikoaren Elizbarrutiko Zuzendaritzaren babesean, 51 ikastetxek euskarazko irakaskuntza elebiduna proposatzen dute Ipar Euskal Herrian: 32 ikastetxe, 12 kolegio eta 7 lizeo, 3700 ikasle baino gehiagorentzat ! 32 ama eskoletatik 23 eskolek murgiltzea proposatzen dute (%100 euskaraz).

Euskal Haziak elkarteak, ikastetxe katoliko elebidunetako gurasoak, irakasleak eta zuzendariak biltzen ditu. Bere eginkizun nagusia irakaskuntza elebiduna sostengatzea eta sustatzea da, ikasleei urtean zehar euskarazko aktibitateak proposatuz (euskarazko ikusgarriak, ipuin idazte lehiaketa, Uda Lekuk antolatzen dituen egonaldietan parte hartzea), baita gurasoendako informazioa/sentsibilizazioa garatuz ere. Honako guztia, euskara eskolako ikasgelatik ateratzeko helburuarekin (familiendako agenda, euskarri ezberdinak).

Ikastetxe guztien federatzeko eta familiei Irakaskuntza Katolikoan euskarazko irakaskuntzaren presentzia ezagutarazteko, ate irekitze egun bat antolatua da 2026ko urtarrilaren 31n, larunbat goizean. Ipar Euskal Herriko 37 eskolek, kolegioek eta lizeoek aldi berean ospatuko dituzte haien ate irekitzeak !

Parte hartuko dutenen zerrenda :

- **BAB:** Angeluko Stella Maris eskola / Arbonako Jondoni Laurendi eskola/ Baionako Largente eskola / Miarritzeko Maria Saindua eskola.
- **Errobi:** Ezpeletako Jondoni Eztebe eskola/ Haltsuko Maurice Harriet eskola/ Itsasuko San Josep eskola/ Kanboko Santa Maria eskola eta San Mixel Garikoitz kolegioa/ Larresoroko San Martin eskola/ Uztaritzeko Jondoni Bixintxo eskola/ Zuraideko Bihotz Sakratua eskola.
- **Hazparneko lurraldea:** Aiherrako eskola libroa/ Beskoitzeko Jondoni Bixintxo eskola / Hazparneko Santa Terexa eskola, Ursuia kolegioa, San Josep eta Armand David lizeoak.

- **Urdazuri:** Hendaiako Jondoni Bixintxo eskola/ Sarako San Josep eskola / Senpereko San Josep eskola eta Arretxea kolegioa / Ziburuko San Mixel eskola / Donibane Lohitzuneko Dona Maria kolegioa.
- **Xiberoa eta Baxe Nafarroa:** Altzaiko San Luis eskola/ Aldudeko Mendi Alde eskola/ Baigorriko Donostei eskola eta kolegioa/ Donapaleuko Etxekopar eskola, Etxekopar kolegioa eta Errekart lizeoa / Donazarreko San Mixel eskola/ Donibane Garaziko Santa Maria eskola eta Mayorga kolegioa/ Mauleko Jeanne d’Arc eskola eta San Frantses kolegioa/ Ortaizeko San Mixel eskola.

Euskal Haziak bere sareko ikastetxeak bisitatzera gomitatzeko dituzte gurasoak, haien identitateak, proiektu pedagogikoak eta bertan lan egiten duten irakasleak hobeki ezagutzeko.

Ongi etorri gure ikastetxetara ! Elebidun biek hobe !

Kontaktuak

Christelle Pucheu eta Arantza Eguiguren, koordinatzaileak 07 72 55 63 53